

Ertzaintzak Donostiako bi herritar isundu ditu, hauek euskaraz artatuak izatea eskatu eta gero

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA :: 18/12/2024

Ertzain patruila horrek ez zien kasurik egin eta polizia-furgoi bati deitu zion. Geroago isuna jaso zuten bi herritar horiek, 602 eurokoa.

Abenduaren 18an kaleratu duen ohar batean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren defendatzaile den Arartekoak kargu hartu dio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, zera adierazteko, Ertzaintzak euskarazko arreta bermatu behar duela.

Gertakari bat dago horren atzean: Donostiako bi herritarrek ipinitako salaketa. Ez da adierazten noiz gertatua den. Ertzaintzako patruila batek tratu desagokia eman ziela salatu zuten bi herritarrek, eta hala uste du Arartekoak ere. Kexaren arabera, ertzainei behin eta berriz euskaraz artatuak izateko eskatu zioten bi herritar horiek, eta ez zien kasurik egin. Are gehiago, polizia-furgoi bati deitu zion patruila horrek, eta bost ertzain gehigarriren esku hartzea eragin. Isuna jaso zuten bi herritar horiek, 602 eurokoa.

Arartekoak informazioa eskatu dio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, eta ondorioztatu du ertzainen jarrera eta egindako gorputz-arakatzea tratu iraingarritzat har daitezkeela, eta, hortaz, ez lukeela egon behar isuna ipintzeko legezko oinarririk.

Arartekoak, ohar horren bidez ez ezik, Eusko Jaurlaritzari zera adierazi dio: herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatu egin behar direla, eta administrazioak betebeharra duela hizkuntza ofizialetan arreta emateko, "bereziki testuinguru publikoetan". Arartekoak esplizituki eskatu du hizkuntza-trebakuntza indartzeko polizia arlo horretan, eskubideberdintasuna sendotze aldera.

Ertzaintzaren euskarazko arreta bermatzeko eskatu dio Arartekoak Jaurlaritzari

<https://eh.lahaine.org/ertzaintzak-donostiako-bi-herritar-isundu>